

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3267

AGINDUA, 2014ko uztailaren 15ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteei laguntzak emateko (BERC Programa).

Nazioarteko lehiakortasun gero eta handiagoak eta ikerketa zientifikoko dinamikak ekarri dute lidergoa apurka-apurka galtzea; are gehiago, erakunde finkatuak ere lidergoa galtzea ekarri dute. Ondorioz, ikerketa-gaietan aitzindari diren herrialdeek laguntza-programak diseinatu dituzte, munduan lehiatzeko gai izango diren bikaintasun-guneak garatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoari interesatzen zaizkion eremuetan jakintza sortzeko egiturak dira Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasuneko Euskal Zentroak (Basque Excellence Research Centres –BERC–), eta ikerketaren bikaintasuna da haien ezaugarri nagusia. Erakunde horiek sortzen dira puntakoak izateko euskal unibertsitate-sisteman eta Euskadin egiten diren ikerketa zientifiko guztietan, bai eta Europako jakintzagune izan daitezen ere, munduan zehar dauden beste zentro batzuekin lotuta.

Agindu hau formulatuta, Euskadi talentugune aurreratu bilaka dadila bultzatu nahi da, betiere egin beharreko jarduerak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2015 planean azaltzen diren estrategiekin uztartuz; izan ere, plan horrek, ildo estrategikoen artean, BERCa sortu eta garatzen laguntzea ezartzen baitu. Laguntza-agindu honekin, azken finean, lortu nahi da lehen mailako ikerketa zientifikoa bultzatzea, Euskadiko ikerketa zientifiko eta teknikoaren kalitatea areagotzeko eta erakartzeko estrategikotzat jotzen diren espezializazio zientifikoko ikertzaileak, nazioartekoak eta bizkortu egingo dutenak hala bikaintasuna, nola egiten den ikerketaren nazioarteko eragina. Hori dela-eta, ekimen hau oso lotuta dago Ikerbasque Fundazioak egiten duen lanarekin, hain zuzen ere Zientziaren Euskal Sistematik kanpoko ikertzaileak erakarri eta bereganatzeko lanarekin. Era berean, ikerketa-zentro horiek eratu eta abian jarri eta gero, mekanismoak ezarri beharko dituzte, lankidetzan jarduteko Euskadiko unibertsitateetako eta beste I+G+B zentro batzuetako ikertzaileekin, eta, horrela, ikertu eta lehiatzeko duten ahalmena bultzatzeko.

Horrenbestez, laguntza hauen helburua da BERCEi garatzen laguntzea, finantzatzeko bidea esleituz, batetik, ebaluazioaren bidez eta proposamen eta emaitzen bidez, eta, bestetik, haien jarduera ez-ekonomikoa eta hari lotutako helburuak analizatuz.

Adierazitako horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2014-2017 aldirako diru-laguntzen oinarriak ezartzea eta deialdia egitea, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteen jarduera ez-ekonomikoa finantzatzeko (BERC Programa).

2. artikulua.– Laguntzen finantzaketa.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzen programaren guztizko zenbatekoa, 2014. urteko aurrekontu-ekitaldia eta 2015, 2016, 2017 eta 2018rako konpromiso-kredituak kontuan hartuta, 40.000.000 euro da, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura. Honakoa izango da funtsen banaketa, urteka:

Urtea	Finantzaketa (eurotan)
2014	8.000.000
2015	10.000.000
2016	10.000.000
2017	10.000.000
2018	2.000.000
Guztira	40.000.000

2.– Eman beharreko laguntza guztien bolumenak ez du gaindituko kontsignazio hori edo kontsignazio hori eguneratzen denean ateratzen dena, betiere indarrean dagoen legerian kredituak lortzeko edo aurrekontuak aldatzeko aurreikusten den erregimenari jarraiki eta horiei buruzko ebazpena eman aurretik. Aipatutako kontsignazioa gaindituz gero, horren berri emango du Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak, ebazpen baten bitartez.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izango dituzte izaera juridiko propioa izan eta oinarrizko ikerketako eta bikaintasuneko zentro modura egiaztatuta dauden erakundeek, betiere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean –urriaren 1eko 221/2002 Dekretuan arautukoan– integratuta badaude.

2.– Onuradunek baldintza hauek beteta izan beharko dituzte eskabideak aurkezten dituzten egunean:

a) Oinarrizko ikerketa- eta bikaintasun-zentro moduan onartuta egon behar dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren arlo publikokoak ez diren erakunde onuradunek zerga-betebeharrak beteta izan beharko dituzte, hala xedatzen baitu Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduak (urriaren 15eko EHAA, 208. zk.). Halaber, Gizarte Segurantzako betebeharrak ere beteta izan beharko dituzte. Organo kudeatzaileak behar beste aldiz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; horretarako, ez du haien baimenik behar izango, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

c) Erakundeek ezin izango dute onuradun izan, baldin eta diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zigortuta badaude bide penaletik edo administratibotik, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren baten eraginpean badaude, ezta sexua bereiztearren zigortuak izan direnak ere, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen –Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaren aldekoaren– azken xedapenetako seigarrenaren arabera. Horrelako egoeraren batean egonez gero, ezin izango dute onuradun izan, zigorrak edo debekuak dirauen bitartean.

d) Zuzendari zientifikoa izan beharko dute, erakunde onuradunarekin lan- edo estatutu-arloko loturaz edo hari atxikita; pertsona hori arduratuko da laguntza jasotzen duten jardueren betearazpenaren zuzendaritzaz.

4. artikulua.– Diruz lagundutako jarduerak.

1.– Erakunde onuradunen ikerketa-programek jasoko dute laguntza; erakunde horiek ikerketa zientifikoa egiteko dauzkaten estrategien ahalmena eta nazioarteko proiektzioa indartzen laguntzen duten ikerketa-programek, hain zuzen ere.

2.– Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira: diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak eta 5. artikuluan ezarritako epean egiten direnak. Laguntzari honako hauek egotzi ahal izango zaizkio: langile-kostuak; ondasun inbentariagarriak lortu, eraiki, berregokitu, hobetu eta alokatzea –betiere ondasun horiek erakunde onuradunaren ibilgetu izatera pasatzen badira–; material suntsigarria hornitzea; aholkularitza eta laguntza teknikoko lanak edo bestelako zerbitzuak kontratatzea; zientzia-jarduerak antolatzea; zientzialarien eta teknikarien dieta eta bidaiak, betiere otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak ezarritako mugen barruan (16/199 Dekretua, Zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa), eta proposatutako jarduerak gauzatzearekin zuzenean lotuta dauden beste batzuk.

5. artikulua.– Laguntzen ezaugarriak eta mugak.

1.– Eman beharreko laguntzak izango dira: diru-laguntza ez itzulgarriak eta urte anitzekoak; eta ikerketa-erakunde onuradunarekin sinatu beharreko hitzarmen baten bidez bideratuko dira.

2.– Laguntza-deialdi honek diruz lagunduko du erakunde onuradunek 2014, 2015, 2016 eta 2017ko ekitaldietan egiten dituzten jarduera ez-ekonomikoen kostu osoaren portzentaje bat. Jarduera horiek bat etorriko dira diru-laguntzaren helburuekin, eta jarduera ez-ekonomikotzat joko dira Europako Batzordeak 2006/C 323/01 zuzentarauan (ikerketa, garapen eta berrikuntzako estatu laguntzen gainekoan) ezartzen dituen erkidegoko esparrurako.

2010. urtearen aurretik egiaztatutako BERCCen kasuan, gehienez % 80 lagunduko da diruz 2014 eta 2015eko ekitaldietan, eta % 70 2016 eta 2017ko ekitaldietan. 2010. urteaz geroztik egiaztatutako BERCCen kasuan, berriz, 2014 eta 2015eko ekitaldietan % 90 lagunduko da, eta 2016 eta 2017ko ekitaldietan % 80.

3.– Diru-laguntzaren helburutik kanpo gelditzen da jarduera ekonomikoa. Jarduera ekonomikotzat jotzen dira hala industriarekin kontratupean burututako ikerketa, nola ikerketa-azpiegituren alokairua eta Europako Batzordearen arauetan –aurreko paragrafoetan jasotakoetan– exijitu eta jasotako baldintzei erantzuten ez dieten beste jarduera ekonomiko batzuk.

6. artikulua.– Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzea.

1.– Agindu honetan ezartzen diren laguntzei heltzen dieten erakunde onuradunek beste laguntza batzuk ere jaso ahal izango dituzte, edozein delarik ere ematen dituen organoa edo administrazioa. Dena den, erakunde onuradunak jasotzen dituen laguntza guztiak bilduta, ezin izango dute gainditu erakundearen jarduera ez-ekonomikoaren kostu osoaren % 100; bestalde, portzentaje horren barruan sartuko dira onuradunak hirugarrenetatik jaso ditzakeen bestelako laguntza edo diru-sarrerak.

2.– Onuradunak jasoko dituen laguntza guztien berri izan ondoren, agindu honetan ezarritakoaren ondorioz onuradun horrek jaso ahal izango dituen laguntzak zehazteko, kontuan hartuko dira Europar Batasunean horretarako indarrean dauden arauak, eta, zehazkiago, zer ezarri den erkidegoko esparruan ikerketa, garapen eta berrikuntzarako estatuko laguntzetarako.

3.– Eskuratutako diru-laguntzek aurreko paragrafoan ezarritako muga gainditzen badute, agindu honetan oinarrituta emandako laguntzei murriztu egingo zaie dagokien zenbatekoa, muga hori erdiesteko.

7. artikulua.– Eskaera eta agiriak.

1.– Hona bidali beharko da agindu honetan aurreikusitako laguntzei heltzeko eskabidea eta gainerako dokumentazioa:

Eusko Jaurlaritza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
Zientzia Politikarako Zuzendaritza.
Erreferentzia: BERC Programa
Donostia-San Sebastián kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako bideak erabili ahal izango dira.

Eskabide-orriak aurkezteko eta informazioa eskatzeko, Zuzenean herritarrentzako zerbitzuko bulegoetara ere jo ahal izango da: Bizkaian (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo), Gipuzkoan (Andia 13, 20003 Donostia), eta Araban (Ramiro Maeztu 10 beh., 01008 Vitoria-Gasteiz).

2.– Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu behar du eskabidea, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50. artikulua 6. idatzi-zatian adierazitako erantzukizunpeko adierazpena egongo da bertan. Honako hauek adierazi beharko ditu adierazpen horrek:

– Ea erakunde eskatzaileak eskatu dion beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturi diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik helburu berbererako, eta ea halakorik eskuratu duen haiengandik.

– Ea erakunde eskatzailea itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean dagoen edo egon den.

– Ea erakunde eskatzaileak administrazio-zehapenik edo zehapen penalik izan duen, laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dionik, edo ea legezko debekurik duen, horretarako desgaitzen duenik.

3.– Dokumentazio hau aurkeztu behar da eskabidearekin batera:

a) Garatu beharreko ekintza-plana edo plan estrategikoa. Zentroak egingo duen ikerketaren plangintza jaso beharko du, baita haren ildo guztiak eta honako hauek ere: ikerketa-taldeak, lortu beharreko helburu eta adierazleak, emaitzen estimazioa, finantza-plana, azpiegituren eta ekipamenduaren deskribapena, hautaketa-politika, ikertzaileen prestakuntza eta berdintasun-plana, eta plana osorik deskribatzeko behar diren kontzeptu guztiak.

b) Eskatzailearen ordezkari-txartelaren kopia.

c) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

d) Diruz lagundu beharreko jarduera gauzatzeko epean, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei jarduera ez-ekonomikorako eskatutako edo haiek horretarako emandako laguntzen adierazpena.

4.– Eskabide-orria eta gainerako dokumentazioa aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, agindu hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

5.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezingo da eskabiderik aldatu, aginduan zehazten diren salbuespenetan izan ezik.

6.– Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da erakundeko, eta ez da onartuko eskabide koordinaturik edo sarekorik.

7.– Deialdiaren testua eta eskabide-eredua helbide honetan daude: https://www.euskadi.net/diru_laguntza/2014/berc/y22-izapide/eu

8. artikulua.– Zuzentzea.

1.– Eskaerak behar bezala betetzen ez badira edo agindu honetan eskatzen den dokumentazio guztia aurkezten ez bada, 10 eguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzentzeko eta falta diren nahitaezko dokumentuak aurkezteko; halaber, eskatzaileari jakinaraziko zaio hori egin ezean eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela. Horretarako, Zientzia Politikarako zuzendariak ebazpena emango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 71.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

2.– Nolanahi ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, edo, behar izanez gero, Ikerbasque Fundazioak, –agindu honetan jasotako diru-laguntzak kudeatzerakoan erakunde laguntzaile modura jardungo baitu– aurkeztutako eskabidea egokiro ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentazio edota argibide osagarriak eska diezazkiekete eskatzaileei, aditzera emanez ezen agindu honetan propio adierazi gabekoetan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoa aplikatuko dela.

9. artikulua.– Ebaluazioa.

1.– Eskabideak ebaluatzeko, zentroak gauzatu beharreko jarduera baloratuko da, betiere irizpide orokor hauen arabera:

a) Bikaintasun zientifikoa eta ikerketaren kalitatea. Hori ebaluatzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Erakundearen ikerketa-programa eta haren ildoak.
- Zentroko ikerketa-ekipoen eta haien produkzio zientifikoaren kalitatea.
- Nazioarteko zientzia-agertokian kokatuz, bere jarduera-arloan sortzen duen eragin- eta lehiakortasun-maila.
- Bikaintasun-ikerlariak erakartzeko plana.
- Ikerlarietzako prestakuntza-ekintzen programa.
- Zentroak eta bere ikerketa-ekipoek nazioartean daukaten proiektzioa eta aintzatespena.
- ISABaren (International Scientific Advisory Board) egokitzapena.

b) Bikaintasunerako gobernua eta kudeaketa. Hori ebaluatzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Plan estrategikoa egokia den erakundearen jarduera-esparruan mugako ezagutza sortzeko.
- Antolamendu-egitura eta jarduketa-plana.

- Eskatutako finantzaketaren egokitzapena.
- Zentroa garatzeko programa, haren ildoak eta haien arteko koherentzia eta lotura.
- Zentroak daukan programa, beste agente batzuekin lankidetzak, lotura eta sinergiak izateko.
- Talentua erakartzeko eta langileak txandakatzeko politika.
- BERC programarentzat kanpo-finantzaketa lortzeko gaitasuna.

c) Euskal zientzia-sistemak RIS3 eta H2020 estrategiei egiten dien ekarpena. Horiek ebaluatzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko eta pribatuekin lankidetzak izatea.
- Nazioarteko ikerketa-sare eta -partzuergoetan integratuta egotea.
- Nazioarte-mailan langileak erakartzeko gaitasuna.
- Ezagutza gizartera eraman eta jendartean zabaltzeko jardueren sustapena.
- Herrialdeko I+Gko estrategiarekin lerrokatuta egotea.

2.– Eskabideak ebaluatzeko, baremo hau ezartzen da: 70 puntu bikaintasun zientifiko eta ikerketaren kalitatearentzat, 15 puntu bikaintasunerako gobernu eta kudeaketaarentzat, eta 15 puntu zientziaren euskal sistema Ikerketaren Europar Espazioan integratzeko egiten diren ekarpenentzat.

Ebaluazio-prozesua egiten den bitartean, informazio osagarria eskatu ahal izango zaie erakunde eskatzaileei, baldin eta beharrezkotzat jotzen bada hobeto ebaluatzeko. Aurrez aurreko elkarrizketa eskatu ahal izango zaie, informazioa jasotzeko.

3.– Eskabideak diruz laguntzeko, gutxienez 75 puntu edo gehiagoko puntuazio orokorra lortu beharko dute, eta, bikaintasun zientifikoko eta ikerketaren kalitateko atalean, berriz, 55 puntu edo gehiago lortu beharko dute.

4.– Eskabideak ebaluatzeko lan materialen kudeaketa-lanak Ikerbasquek egingo ditu, Zientziarako Euskal Fundazioak. Zientziaren Euskal Sistematik kanpo dauden eta BERC bakoitzaren zientzia-arloan nazioarteko ospea duten bi adituk erakunde eskatzaile bakoitzarentzat egindako balorazio-txosten zientifiko-teknikoak bilduko ditu horrek, erakunde laguntzaile modura.

5.– Ebaluazioen koordinazioa. Ikerbasque Fundazioko Zientzia Batzorde Aholkulariko koordinatzaileek gainbegiratuko dute ebaluazio-irizpideak behar bezala aplikatzen diren ala ez, eta hark homogeneizatuko du ebaluatzaileek egindako interpretazioa. Koordinazioa bi mailatan egingo da: aurrena, zentro bakoitzeko banan banako ebaluazioak koordinatuko dira, eta gero, eskatzaile guztiei egindako ebaluazioak. Eraitza gisa, eskaera bakoitzaren ebaluazio bakarra aurkeztuko diote Ikerbasque Fundazioko Zientzia Batzorde Aholkulariko koordinatzaileek Hautaketa Batzordeari. Koordinazio-lan horretan sartuko da, gainera, eskatutako aurrekontua zentro bakoitzak gauzatu beharreko ekintza-planera edo plan estrategikora egokitzeari buruzko balorazio teknikoak egitea ere.

10. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatu eta gero, Hautaketa Batzordeak egingo ditu agindu honetan xedatutako diru-laguntzetarako esleipen-proposamenak.

2.– Honako hauek izango dira Hautaketa Batzordeko kideak: Unibertsitate eta Ikerketako sailburordea –bera izango da batzordeburua–, Zientzia Politikarako zuzendaria, Ikerbasque Fundazioko Zientzia Batzorde Aholkulariko koordinatzaileak (eskaeren arloetakoak) eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari bat –bera izango da batzordeko idazkaria–.

3.– Kasu bakoitzean, Hautaketa Batzordeak zehaztuko du zer aurrekontu onartzen den, eta kontuan hartuko ditu 4. artikuluan ezarritako kontzeptuak, betiere eskabidean planteatu eta behar bezala egiaztatutako premien arabera eta koordinatzaileen gomendioen arabera.

11. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

1.– Hautaketa Batzordeak deialdiaren ebazpen-proposamena prestatuko du.

2.– Proposamena diru-laguntza ematearen aldekoa bada, hau dena adierazi beharko da bertan: nor den erakunde onuraduna, zein den betearazpen-epea, guztira zenbat esleitu zaion eta diru-laguntzaren urtekoak; baita onuradunarekin sinatu beharreko hitzarmena definitzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein baldintza ere.

3.– Proposamena kontrakoa bada, diru-laguntza zein erakundek eskatzen duen identifikatu behar da bertan, eta laguntza ukatzea zergatik proposatzen den adierazi behar da.

12. artikulua.– Esleitzeko prozedura.

1.– Laguntzak esleitzeko 2.1 artikuluan ezartzen den zenbatekoaren hainbanaketa egingo da, beharrezkoa den gutxieneko puntuazioa lortu dutenen artean. Funtsen banaketa honela egingo da: % 75, onartutako aurrekontuen pisu erlatiboaren arabera, eta % 25, ebaluazioan lortutako notaren arabera.

2.– Onuradun bakoitzari eman beharreko diru-laguntzak ezingo du gaintitu 5. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako jarduera ez-ekonomikoaren kostuaren portzentajea.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak emango ditu eskatutako laguntzak onartzeko edo ukatzeko administrazio-ebazpenak.

2.– Diru-laguntza emango zaien eskaeren ebazpenak hau dena jasoko du: nor den erakunde onuraduna, zein den betearazpen-epea, guztira zenbat esleitu zaion, diru-laguntzaren urtekoak zein diren eta zein justifikazio-agiri eskatzen diren ordainketa egiteko. Diru-laguntzarik emango ez zaien ebazpenek, berriz, laguntza ukatzeko proposamena egitea eragin duten arrazoiak adieraziko dituzte.

3.– Ebazpenaren aurka jotzeko, interesdunek errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoari jarraiki.

4.– Eskabidea aurkeztu eta sei hilabete igarota ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezesitatzat jo ahal izango du interesdunak.

5.– Ebazpenaren berri banan-banan emango zaie eskatzaileei, nahiz eta, publizitate-ondorioetarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zerrenda bat argitaratuko den, adierazteko nortzuk diren onuradunak eta zenbateko diru-laguntza ematen zaien.

6.– Ebazpena jakinarazten denetik gehienez ere hilabete batera, hitzarmen bat formalizatu beharko da erakunde onuradunarekin, ebazpeneko baldintzen arabera. Hitzarmenak alderdi hauek jaso beharko ditu gutxienez:

a) Garatu beharreko ikerketa-ildoak, zentroaren plan estrategikoan aurreikusitako helburuekin bat, eta helburu horien betetze-maila ebaluatzeko irizpideak. Irizpide horiek beren-beregi jasoko dituzte kalitate-adierazleak eta helburuen araberrako emaitzen ebaluazioa.

b) Indarraldia.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako laguntzak, laguntzak ordaintzeko epeak eta moduak eta zer dokumentu aurkeztu behar den laguntzak justifikatzeko.

d) Adostutako konpromisoak ez betetzeak izan ditzakeen ondorioak.

e) Hitzarmena indarrean den bitartean hura aldatzeko aukerari buruzko zehaztapenak, xedapenen aldaketei edo aurreikus daitezkeen antzeko aldaketei egokitzeko.

f) Indarraldia bukatu barik hitzarmena bestelako arrazoiagatik iraungitzea, eta, kasu horretan, nola bukatu behar diren aurrera eramaten ari diren jarduerak.

g) Hitzarmena suntsitzeko arrazoiak eta ondorioak.

h) Kontrol-neurriak, eta, behar izanez gero, Jarraipen Batzorde Mistoa ezartzea.

7.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak sinatuko ditu hitzarmenak.

14. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Laguntzak zatika ordainduko dira, honela:

a) 2014ko urtekoaren % 80, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta berehala.

b) Gainerako % 20a 2015ean ordainduko da, urteko horretako jarduera ez-ekonomikoa egin izanaren justifikazio-agiriak eta jarduera horren helburuen betetze-maila aurkeztu ondoren.

c) 2015ean, bigarren urtekoari dagokion diru-laguntzaren % 80 aurreratuko da, eta gainerako % 20a hurrengo ekitaldian ordainduko da, arestian adierazitako dokumentuak aurkeztu eta gero. 2016ko eta 2017ko urtekoekin ere berdin jokatuko da.

2.– Justifikatzeko dokumentuek jaso behar dute:

a) Txosten bat, plan estrategikoan proposatutako helburuen betetze-mailari buruz.

b) Auditoretza-txosten bat, erakunde onuradunaren egoera finantzarioari buruz.

c) Auditore batek emandako ziurtagiria, erakundeak burututako jarduera ez-ekonomikoaren zenbatekoari buruzkoa.

d) Ziurtagiri bat, erakunde onuradunaren legezko ordezkariak egina, eta erakundeak ekitaldi horretan beste erakunde publiko edo pribatuetatik deialdiaren helburu bererako jasotako laguntza guztiei buruzkoa.

3.– Justifikazio-agiriak 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietako lehenengo sei hilabetekoan aurkeztu beharko dira.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunak behartuta daude zuzenean eurek egitera diruz lagundutako jarduera ez-ekonomikoak; gainera, honako hauetara behartuta daude:

a) Diru-laguntza zertarako eman den, horretarako erabiltzea, nahiz eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzak onartu ahal izango dituen jarduera horiek burutzerakoan sor litezkeen aldaketak, betiere aldaketa horiek guztiz justifikatzen badira, eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren beraiazko baimena lortu bada, agindu honetan ezarritako moduan.

b) Kostu-kontrolari eustea. Horren bidez, erakundeak burutzen duen jarduera ekonomikoa eta ez-ekonomikoa bereiziko dira.

c) Zientzia Politikarako Zuzendaritzari laguntzea, esleitutako diru-laguntzen inguruan hark egokitzen jotzen duen guztia egiaztatzeko. Halaber, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute erakunde onuradunek.

d) Behin betiko fakturak artxibatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren esku jartzea, hamar urtez gutxienez.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –diru-laguntzen gaineko fiskalizazio-egitekoak dituztenez– eskatzen duten informazio guztia ematea.

f) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako edo antzerako emandako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo eskuratzeko, horren berri ematea Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

g) Publizitate egokia ematea agindu honetan aurreikusitako laguntzen xedeko jardueren finantzaketaren izaera publikoari.

h) Zuzendaritza zientifikoko titularrak kargua utziz gero, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraztea zein den kargu hori betetzeko prozedura.

16. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagozkio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak.

17. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

1.– Agindu honetan jasotako xedapenekin bat esleitutako diru-laguntzak kudeatzeko, Ikerbasque Fundazioa izendatu da erakunde laguntzaile, betiere Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 52. artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra ezartzen duena eta haien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betebeharrak, erregimena eta obligazioak zehazten dituen) ezarritako zehaztapenekin bat etorritz.

2.– Ikerbasque Fundazioak, erakunde laguntzaile gisa, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Proposamenak aztertu eta ebaluatzeko kudeaketa-lanak.

b) Erakunde onuradunarekin sinatu beharreko hitzarmena proposatzea.

c) Jarraipen-prozesuak definitu eta ezartzeko proposatzea.

d) Lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa kudeatzea.

e) Zientzia Politikarako Zuzendaritzak hala aginduta, programaren kudeaketa zuzenerako behar diren jardueretan laguntzea.

f) Zientzia Politikarako Zuzendaritzak programa honen kudeaketa egiaztatzeko egiten dituen ekintzak onartzea.

18. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Agindu honetan eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako edozein baldintza ez badu betetzen onuradunak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 53.1 artikulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4.1 artikulua ezarritako kasuak gertatzen badira (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta obligazioak ezartzen ditu dekretu horrek) eta laguntzen esleipen-ebazpenean edo 13.6 artikuluan aipatutako hitzarmenean ezarritako baldintzak ez baditu betetzen onuradunak, laguntza, osorik edo zati batean, bertan behera uzteko administrazio-ebazpena emango du organo eskudunak, ez-betetzearen espediente egin eta interesdunari entzun ondoren. Kasuaren arabera, eskuratutako laguntzak eta haiei dagozkien legezko interesak itzultzeko obligazioa izango du interesdunak, eta, halaber, bidezkoak diren gainerako egintzen eragina ere izan dezake. Kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorio guztietarako.

2.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari dagokio ez-betetzeengatik espedienteak irekitzea eta espediente horiek ebaztea; behar izanez gero, Ikerbasque Fundazioaren proposamenez ere ireki daitezke espedienteak.

19. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izaten diren baldintzak aldatzen badira edota beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntza gehiago lortzen bada edota bestelako diru-sarrerarik balego helburu bera lortzeko, diru-laguntza emateko ebazpena alda daiteke; betiere agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Salbuespen gisa, aurrera eraman beharreko jarduerak egiteko epea luzatu ahal izango du laguntzak onartu zituen administrazio-organoak; horretarako, beharrezkoa da aurretik onuradunak eskabidea egin eta justifikatzea, eta alegatzen diren arrazoiek luzapen hori justifikatzea.

3.– Zientzia Politikarako zuzendariak aldaketak onar ditzake jardueretan, betiere alde zuzenetik aldaketak egitea eskatzen badu erakunde onuradunak eta amaitu aurretik guztiz justifikatzen baditu, eta ez baditu desitxuratzen lortu nahi diren izaera eta helburuak.

20. artikulua.– Datuak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Ikerketa» izeneko fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenean berri emateko (fitxategi hori 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututa dago –2010eko azaroaren 5eko EHAA–). Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Aurka egin, sartu, zuzendu eta ezabatzeko

2014ko uztailaren 16a, asteazkena

eskubideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, honako agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 15a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko uztailaren 16a, asteazkena

BERC LAGUNTZAK 2014-2017. ESKABIDEA

Sinatzaileak, -k (bi abizen eta izena), NAN- _____

zenbakia duenak, _____ erakundearen ordezkari den aldetik, _____

honako eskaera hau egiten du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko AGINDUari helduz, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroyen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteei laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen

BERC Programa, 2014/07/ ___ko EHAA, _____zk.):

ESKAERA

BERC 2014-2017 laguntza bat emateko, agiri honekin batera aurkeztutako datuekin bat etorritz.

Sinatzaileak honako hau adierazten du:

– Erakunde eskatzaileak EZ DU JASO/JASO DU(bietako bat aukeratu) diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, eta EZ DAUKA/BADAUKA (bietako bat aukeratu) horretarako legezko debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

– EZ DAUKA/BADAUKA (bietako bat aukeratu) itzultze- edo zehatze-prozedurarik izapidetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako eta izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasitakorik.

– KONPROMISOA HARTZEN DU/EZ DU KONPROMISORIK HARTZEN Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazteko diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratzen badira edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik.

Eta jasota gera dadin sinatzen du agiri hau, 2014ko _____ren _____n

Erakundearen legezko ordezkariaren sinadura

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Personaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritz, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Ikerketa» izeneko fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko (fitxategi hori 2010eko urriaren 4ko Aginduan araututa dago –2010eko azaroaren 5eko EHAA–). Zientzia Politikarako Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna. Aurka egin, sartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

UNIBERTSITATE ETA IKERKETAKO SAILBURUORDEA.